

# Uraren Euskal Agentziaren Memoria



2016

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



## 1 Agurra / 3

## 2 Aurkezpena / 4

## 3 Gobernu, kudeaketa eta aholkularitza organoak / 5

### 3.1. KUDEAKETA ORGANOAK / 6

#### 3.1.1 Eremuko zuzendaritzak / 6

#### 3.1.2 Arroen Bulegoak / 6

## 4 Administrazioa eta zerbitzuak / 7

### 4.1. PLANTILLA / 7

### 4.2. URAREN AURREKONTUAK / 7

#### 4.2.1 Ustiapen-aurrekontua / 7

#### 4.2.2 Kapitalaren aurrekontua / 7

### 4.3. URAREN EUSKAL AGENTZIAREN KOMUNIKAZIOA / 8

### 4.4. BERDINTASUN PLANA / 8

### 4.5. EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIORAKO PLANA / 9

## 5 Jabari publikoaren kudeaketa / 10

### 5.1. HOBETZEKO JARDUKETAK / 10

### 5.2. LAN BAIMENEN ARLOA / 10

#### 5.2.1 Lan-baimenak Jabari Publiko Hidraulikoan eta zaintza-aldean / 10

#### 5.2.2 Lan-baimenak itsas-lehorreko zortasun-eremuan / 11

#### 5.2.3 Ur Jabari Publikoa okupatzeagatiko kanona / 12

### 5.3. ISURKETEN ARLOA / 13

#### 5.3.1 Isurketa-baimenak / 13

#### 5.3.2 Ingurumeneko Baimen Bateratua / 14

#### 5.3.3 Isurketak Kontrolatzeko Kanona / 15

### 5.4. UR-APROBETXAMENDUAK / 15

#### 5.4.1. Uraren kanona / 16

#### 5.4.2. Uraren erabileren inbentarioa / 17

### 5.5. IBILGUAK MANTENTZEKO ZERBITZUA / 17

### 5.6. IKUSKARITZA ARLOA ETA LABORATEGIA / 19

#### 5.6.1. Ikuskaritza-arloa / 19

#### 5.6.2. Laborategia / 19

## 6 Plangintza eta lanak / 21

### 6.1. PLANGINTZA HIDROLOGIKOA / 21

#### 6.1.1 Euskal Autonomia Erkidegoko Barneko Arroen Plan Hidrologikoaren Berrikuspena / 21

#### 6.1.2 Plangintza hidrologikoaren beste jarduera batzuk / 21

#### 6.1.3 Ur-masen egoeraren jarraipena egiteko sareak / 23

#### 6.1.4 Informazio-sistemak / 24

#### 6.1.5 Lankidetzeta-hitzarmenak / 24

#### 6.1.6 Formazio eta sentsibilizazio ekintzak / 26

### 6.2. EBALUAZIOA / 26

### 6.3. UHOLDEEI AURREA HARTZEA / 28

#### 6.3.1 Uholde-arriskuaren Ebaluazio eta Kudeaketa EAEn / 28

#### 6.3.2 Aurreikuspen eta Alerta Hidrologikoen Sistema (UHATE) / 28

#### 6.3.3 Informazio Hidrologikoaren Sistema Automatikoa (SAIH) / 29

### 6.4. LANAK / 29

# 1 Agurra

Lagun hori:

Uraren Euskal Agentziaren zuzendaritza nagusira heldu berri naizen honetan Uraren Euskal Agentziako lan-taldeak 2016an burututako lan-egitasmo nagusien memoria aurkezten dizuet.

Euskadiko herritarrentzat lan egiten dugun zerbitzu publikoa gara. Gure lanaren funtsa, agerikoa: ingurune urtarraren egoera ona lortzea. Izan ere, herri honetan bizi garen pertsonon ur-beharrizanak asetzeko bermerik hoberena da. Parez pare, uholde arriskuaren kudeatzea dagokigu. Labur-labur esanda, bermatu beharra dugu ur goraldiek bere egiten dituen lurraldearen eremuak ez okupatzea. Halaber, ibaiari legozkiekeen eta jada okupatutako lurraldearen eremuetan, goraldiei aurre egin behar diegu: pertsonak nahiz eremu kalteberak defendatzeko.

Izan ere, "Ura da. Gu gara". Herririk ez da ur-kalitate eta ur-kantitate nahikoa izan ezean. Jakin badakigu ura oinarritzko baliabidea dugula; hortaz, ezinbestekoa berau zaindu eta egoki kudeatzea, gure ongizatea lortuko badugu. Jakitun gara, bestalde, ura dela ekosistemaren oinarria, zein ekosistema horren kide eta mendeko gara.

Balio izugarria duen ondarea delako, lurraldean harekin ondo elkarbizitzea lortu behar dugu. Ezinbesteko ditugu bere izaera aintzat hartzea, bere egiten dituen eremuetan ez sartzea eta bere izaera dinamiko setatia errespetatzea.

Beste era batera esanda: geure jardun eta presentziak ur-masetan sortzen dituzten erasanak — ur-hartze, isurketa edota lurraldearen okupazioen bidez — murriztea eta lehengoratztea dugu helburu.

Azkenik, azpimarratzekoa da gure egiten ditugula genero-berdintasuna nahiz euskararen normalizazio lortzea. Hartara, Berdintasun-plana eta Euskararen Erabilera Plana onartu ditugu. Aurrerantzean, plan horiek biak garatzea dagokigu: ekar liezazkigukeen onurak gauzatzeko, eta bidezko eta berdintasunezko gizartearen alde egiten laguntzeko.

URAn lan egiten dugun lan-taldearen izenean, gonbitea luzatzen dizugu memoria irakurtzera. Ongietorriak bitez zure iritzi eta iradokizunak, ziur baikaude gure jarduera hobetzeko lagungarri izango zaizkigula.

Horrenbestez, agur.

ERNESTO MARTINEZ DE CABREDO ARRIETA  
ZUZENDARI NAGUSIA



## 2 Aurkezpena

URA Uraren Euskal Agentziaren helburua Euskadin uraren politika kudeatzea da.

Agentzia ekainaren 23ko 1/2006 Uren Legearen bitartez sortu zen, eta zuzenbide pribatuaren eraginpeko erakunde publikoaren izaera juridikoa du, nortasun juridiko propioa izanik. Eusko Jaurlaritzan ingurumen-erloan eskumenekoa den sailari atxikita dago.

Hori guztia Uren Euskal Legearen testuinguruan, Estatu espainolak Europako Zuzentaraua bereganatu aurretik onartu zena, eta ur-ingurunea babesteko politika integrala ahalbidetzeko helburua duena. Horretarako, Agentziak koordinatu eta bateratu egiten ditu foru-administrazioek eta autonomia-erkidegoaren administrazioak uraren kudeaketan eta administrazioan dituzten eskumenak, baimenei, emakidei eta diziplina hidraulikoari dagokienez Uren legea onartu arte indarrean zegoen eskumen-sakabanaketa saihestuz.



# 3 - Gobernu, kudeaketa eta aholkularitza organoak

URA, bere hasieratik, Eusko Jaurlaritzaren politika hidraulikoaren tresna ez ezik, hiru Aldundien tresna ere bada, eta, arlo horretan eskumenekoak izaki, agentziaren Administrazio Kontseilua ere osatzen dute, modu paritarioan.

Administrazio Kontseilu horrekin batera URAk parte-hartze eta aholkularitzarako beste bi organo ditu.

Erabiltzaileen Batzarra, biltzera datorrena Eusko Legebiltzarraren, Eusko Jaurlaritzaren, hiru Foru Aldundien, ur-alarreko eskumeneko Ministerioaren, lurralde historikoetan kokatutako erakunde hornitzaileen, EUDELe izendatutako tokiko administrazioen eta erabiltzaileen ordezkariak.

Uraren Kontseilua, non parte hartzen duten Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek, Eudelek izendatutako toki-administrazioek, erabiltzaileek, Ur eta Kosten alorreko eskumeneko Ministerioak, naturaren defentsaren aldeko elkarteek eta Euskal Herriko Unibertsitateak.

|   |   |
|---|---|
| <b>Gobernu eta zuzendaritza organoak</b>      | <b>Administrazio kontseilua</b>   |
| <b>Parte-harte eta aholkularitza organoak</b> | <b>Erabiltzaileen Batzarra</b>  |
| <b>Kudeaketa organoak</b>                     | <b>Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Kontseilua</b>  |
|   | <b>Zuzendaritza nagusia</b>   |
| <b>Eremuko zuzendaritzak</b>                  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Administrazio eta Zerbitzuen Zuzendaritza</li> <li>Plangintza eta Lanen Zuzendaritza</li> <li>Jabari Publikoa Kudeatzeko Zuzendaritza</li> </ul> |
| <b>Arroen bulegoak</b>                        | <ul style="list-style-type: none"> <li>Mendebaldeko kantauriar arroen bulegoa</li> <li>Ekialdeko kantauriar arroen bulegoa</li> <li>Mediterraneoko arroen bulegoa</li> </ul>            |
| <b>Koordinazio organoak</b>                   | <b>Zuzendaritza batzordea</b>   |




# 3.1 Kudeaketa organoak

## 3.1.1 Eremuko zuzendaritzak

Uraren Euskal Agentziaren lan-arloak hiru Zuzendaritzatan antolatzen dira, zuzendari nagusiaren mende:

- ◊ Plangintza eta Lanen Zuzendaritza
- ◊ Jabari Publikoa Kudeatzeko Zuzendaritza
- ◊ Administrazio eta Zerbitzuen Zuzendaritza.



## 3.1.2 Arroen Bulegoak

Bestalde, Agentziak hiru lurralde-bulego ditu, hiru hiriburuetan: Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoa (Bilbo), Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoa (Donostia) eta Mediterraneoko Arroen Bulegoa (Gasteiz). Horrez gain, laborategi bat dauka Lasarten ikuskariek hartutako laginak azterketa egiteko.

## Parte-harte eremuak eta unitate hidrologikoak

### 1. Ekialdeko Kantauriar arroak


- Bidasoa
- Urumea
- Urola
- Oiartzun
- Oria
- Deba

### 2. Mendebaldeko Kantauriar arroak

- Artibai
- Oka
- Ibaizabal
- Agüera
- Lea
- Butroe
- Barbadum
- Karrantza

### 3. Mediterraneoko Isurialdea

- Puron
- Baia
- Inglares
- Arakil
- Omecillo
- Zadorra
- Ega
- Ebro



# Administrazioa eta zerbitzuak

Uraren Euskal Agentziaren lantaldea 2016ko abenduaren 31an, honako hauek osatzen dute

## 4.1 Plantilla

| KATEGORIA                           | Guztira    | Emakumeak | Gizonak   |
|-------------------------------------|------------|-----------|-----------|
| Zuzendaritza Nagusia                | 1          |           | 1         |
| Arlo zuzendaritza / Bulegoburuak    | 6          | 3         | 3         |
| Teknikariak eta tarteko arduradunak | 119        | 45        | 74        |
| Administrariak                      | 42         | 36        | 6         |
| <b>LAN-HARREMAN MOTA</b>            |            |           |           |
| Funtzionarioak                      | 15         | 8         | 7         |
| Laboralak                           | 153        | 76        | 77        |
| <b>GUZTIRA</b>                      | <b>168</b> | <b>84</b> | <b>84</b> |

## 4.2 Uraren aurrekontua

### 4.2.1 Ustiapen-aurrekontua

| GASTUAK (Mila)           | 2016          |
|--------------------------|---------------|
| LANGILEEN GASTUAK        | 8.869         |
| FUNTZIONAMENDUKO GASTUAK | 7.097         |
| <b>GUZTIRA</b>           | <b>15.786</b> |

| SARRERAK (Mila)                   | 2016          |
|-----------------------------------|---------------|
| EJko USTIAPENERAKO DIRU-LAGUNTZAK | 11.970        |
| SARRERA PROPIOAK                  | 3.816         |
| <b>GUZTIRA</b>                    | <b>15.786</b> |

### 4.2.2 Kapitalaren aurrekontua

| INBERTSIOA (Mila)                                 | 2016          |
|---|---------------|
| BEREZKO ONDASUNAK                                 | 19.417        |
| BESTE ERAKUNDE BATZUETARAKO KUDEATUTAKO ONDASUNAK | 5.141         |
| HIRUGARRENEI EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK              | 121           |
| <b>GUZTIRA</b>                                    | <b>24.679</b> |



## 4.3 Uraren Euskal Agentziaren Komunikazioa

Uraren Euskal Agentziaren helburu nagusietako bat Komunikazio eraginkorra eta gardena lortzea da.

Helburu hori lortzeko dagoeneko hainbat bide irekita zeuden herritar zein komunikabidek kontsultak kexak edo iradokizunak helarazteko. Hauek dira horien emaitzak **Prensa kabinetea**, horren bitartez Uraren Euskal Agentziaren jardueri buruz informatzen jarraitzen da. Horrekin batera komunikabideen kontsultak erantzun dira, **91 urte honetan**.

**Kontsulta-buzoia:** horren bitartez erantzuten dira herritarrek Agentziara helarazten dituzten kontsultak, iradokizun, kexak etab. Aurten 103 kontsulta.

**Web-gunea:** Etengabeko eguneraketan dagoen webguneak batez besteko 60.000 bisita inguru jaso ditu.

**Sare sozialak:** 2016an Twitter (1300 jarraitzailetik gora), Facebook (1500 jarraitzailetik gora) eta youtube edo flickr bezalako sare sozialetan hasitako lana jarraitu egin da, bertatik URAREN lanari jarraipena egiten jarraitzeko formatu desberdinen bitartez: testua, argazkiak, bideoak...

Hilabetero egiten den newsletterrak ere bere bidea jarraitu du eta 500 bazkide inguru ditu gazteleraz eta 30 euskaraz. Aldizkari horretan URAREN azken albisteak eskaintzen dira eta martxan dauden lizitazioak.

Horrez gain 2016 gardentasun eta komunikazio irekiaren bidea egiten jarraitzeko instagramen kontua ireki dugu, herritarrei hurbiltzeko bideak berritzeko asmoarekin, momentu honetan kontuak 100 jarraitzaile ditu.

## 4.4 Berdintasun plana

2015ean plana adostu zen, **Berdintasun taldeak** sustatua (zuzendaritzako, langileen ordezkarietako eta URAREN lanpostu desberdinetako pertsonek osatutako taldea). Plan hori aurrera eramateko asmoarekin zehaztutako taldea lehen ekintzetako batekin hasi zen, hain zuzen ere, **Sexu-jazarpenari eta jazarpen sexistari edo sexuan oinarritutako jazarpenari aurrea hartzeko eta aurre egiteko protokoloa**. Aurten lan horretan jarraitu dugu.



Berdintasun taldea 5 aldiz bildu da eta gai horiek era hurbilago batean landu eta dinamizatzeko asmoarekin URaren bulego bakoitzean jarri ziren txoko lilak eguneratzen dihardu, bertan eskegitzen goaz hausnarketarako testuak inkestak berdintasunaren inguruko gai ezberdinekin (estereotipoak, lan eta familiaren arteko bateragarritasuna...). Halaber gure webgune eta sare sozialetan Emakunderen kanpaina berezien berri ematen dugu, adibidez emakumeen nazioarteko egunean eta emakumearen aurkako kontrako nazioarteko egunean

## 4.5 Euskararen erabileraren normalizaziorako plana

2015 urte amaieran onartu zen Uraren Euskal Agentziaren hizkuntza politikaren nondik norakoak- helburuak, ekintzak, bitartekoak, epeak - jasotzen dituen Plana. Euskararen Erabileraren Normalizaziorako

Plan horrek xede du herritarrek beraiek aukeratutako hizkuntzan artatuak izan daitezzen bermatu ahal izatea, horretarako erakundearen zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza euskaraz ere izan dadin neurriak planean jasoz.

Agentziaren egoera linguistikoaren diagnostika neurri handi batean egina da, baina oraindik orain atalez ataleko informazio bilketa erakunde guztian egin zain dago. Horrela, bada, Plangintzaldia bukatzeko gelditzen zen eperako aurreikusiriko urteko plana ere zehazteke gelditu da.



# Jabari publikoaren kudeaketa

## 5.1 Hobetzeko jarduketak

2016. urtean, Jabari Publikoa Kudeatzeko Zuzendaritzatik honako hobekuntza-jardun hauek gauzatu dira, besteak beste:

- ◊ Erkidegoarteko arrotan Kudeaketa-gomendio berria ezartzeko baldintzak zehaztea.
- ◊ JPKZ sinplifikazio eta arintasun administratiboa egiteko sistemaren garapena.
- ◊ JPKZ-aren Kudeaketa-sistema eta zerbitzu-katalogoaren garapena.
- ◊ Sailburuaren agindua egin, ur-aprobetxamenduetatik ateratako ur-bolumenen kontrolean hobekuntzak ezartzen dituen.
- ◊ Landa-lanak kudeatzeko tresna informatikoaren garapena (KLK).
- ◊ JPH isurketa baimen-espeditenteen izapidetze elektronikoa ezartzea.
- ◊ Toki-erakundeekin lbaien mantentze lanak sustatzeko hitzarmenak abian jarri eta garatzea.
- ◊ Isurketa analitiken karga egiteko tresna informatikoaren garapena (DKT).
- ◊ OBIEE-ren garapena, isurketa eta administrazio-izapideak egiteko.
- ◊ Aprobetxamendu-emarien kontrola hobetzeko neurriak.
- ◊ Aprobetxamendu nagusien erregularizazioa.
- ◊ Emari ekologikoen hitzartze-prozesua.

## 5.2 LAN Baimenen arloa

### 5.2.1 Lan-baimenak Jabari Publiko Hidraulikoan eta zaintza-aldean

Lan-baimenen helburu nagusia honakoa da: jabari publikoan edo haren ingurunean (zaintza- eta zortasun-eremuak) lanak eta jardunak egiteko baldintzak ezartzea; hartara, ur-masen nariadura saihesteko, eta horien hobekuntzan ahalegintzeko. Betiere uholde-arriskugarritasuna aintzat hartuta.

Arroen bulegoetako arduradunek administrazio edota partikularrek jabari publiko hidraulikoan edota ibilgu-zaintzako eta zortasun-eremuetan egin ditzaketen jardun eta obren baimenak izapidetzen dituzte, lanon kontrola eta jarraipena barne.

2016. urtean Lan Baimenen inguruko 664 txosten hasi dira (urbanizazioak, eraikuntzak, landaketak, mozketak eta abar) eta 595 ebatzi. Gainera, partikularrek, administrazioek edo enpresek egindako 433 kontsultari eman zaie erantzuna, alde zuretik adierazitako eremuetan egin beharreko jardunen inguruan. Horietatik 349 erantzun dira.

Halaber, arroen bulegoek guztira 34 hirigintza-txosten hasi dituzte, beste administrazio batzuen izapidetzeen barruan egindako eskaerei erantzuteko edo udalek, aldundiek edo sustatzaileek egindako eskaerei erantzuteko. Horietatik 27 ebatzi dira.

2016. urtean, nabigaziorako erantzukizun-aitorpena egiteko 59 eskaera erregistratu dira. Mediterraneoko arroetako bulegoan 56, beste 2 Mendebaldeko Kantauriar arroen bulegoan, eta bat Ekialdeko Kantauriar arroen bulegoan.

Bestetik partikularren 175 salaketa jaso dira guztira, ustez baimenen baldintzak betetzen ez zirelako edota arau-hausteren bat zegoelako, beste batzuen artean.

Indarrean dagoen legegintza-esparruak xedatutakoari jarraiki, 27 zehapen-txosten irekitzeko proposamena egin da, lanak administrazio-baimenik gabe egiteagatik edota jabari publiko hidraulikoari eragiteagatik.

Zeregin horiez gain langileek jendartea artatzeko eta haiei aholkuak emateko lanak ere izan dira.

## 5.2.2 Lan-baimenak itsas-lehorreko zortasun-eremuan


Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoak eta Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoak jabari publikoan edota itsas-lehorreko jabari publikoko babes-zortasuneko eremuetan egindako baimenak izapidetzeaz gain, eremu horretan administrazio eta partikularrek egindako lan eta jardunen kontrola eta jarraipena egiten dute. Horrez gain, itsas-lehorreko jabari publikoan egindako jardunei buruzko txostenak ematen dituzte.

2016. urtean 84 baimen-txosten hasi eta 72 ebatzi dira. Gainera, partikularrek, Administrazioek edo enpresek egindako 165 kontsulta-txosten eta txosten-eskaera hasi eta 127ri erantzuna eman zaie, alde zuzenetik adierazitako eremuetan egin beharreko jardunen inguruan.

Bestetik, partikularrek edo administrazioek egindako 24 salaketa jaso dira guztira, ustez baimenen baldintzak betetzen ez zirelako edo arau-hausteren bat ematen zelako.

Gainera, eta indarreko legegintza-esparruaren barruan, ez da zehapen-espediterik irekitzeko proposamenik egin, lanak administrazio-baimenik gabe egiteagatik edota itsas-lehorreko jabariari eta zerrenda elkartuei eragiteagatik.

2016ko Lan baimenak




### 5.2.3 Ur Jabari Publikoa okupatzeagatiko kanona

Jabari publiko hidraulikoaren okupazioari edo erabilerari okupazio-kanonaren zerga ezartzen zaio, jabari hori babestu eta hobetzeko. Gaur egun Uraren Euskal Agentziak bakarrik Euskal Autonomia Erkidegoko barne arroetako kanona likidatzen du.


2017. urtean, 2016ko ekitaldiari dagokion okupazio-kanonagatik 502.572 € bilduko direla aurreikusten da.

Kanon honetan eman den igoyeraren arrazoia honako hau da: Jabari publikoaren kanonaren zerga-oinarria den lurzoru-balorazio berria onartu da, 238,85 euro/m hiri-lurzorurako eta 9,59 euro/m landa-lurzorurako.

Kitatutako okupazio kanonaren eboluzioa




JPH



2012tik aurrera datuok txosten-kudeaketarako kudeatzailetik aterata

ILZ



2012tik aurrera datuok txosten-kudeaketarako kudeatzailetik aterata

## 5.3 Isurketen arloa

### 5.3.1 Isurketa-baimenak

Isurketa-baimenak izapidetuz zera lortu nahi da: jabari publikora egin beharreko isurketak zer baldintzatan egin daitezkeen ezartzea, ur-masen egoerari ahalik eta eraginik txikiena eragiteko.

2016an isurketak baimentzeko, berraztertzeko edota titulartasuna aldatzeko 207 eskaera berri izapidetu dira, eta aurreko urteetan hasitako baimen-ebazpenik gabeko txosten ugari izapidetzen ere jarraitu dute. Orotara, 191 isurketa-baimen ebatzi dira.

Horrez gain partikularren, administrazioen edo enpresen 69 kontsulta jaso dira eta 42 erantzun, aurretik aipatutako arloetan egin beharreko ekintzei buruz. Beste alde batetik, partikularren 260 salaketa jaso dira lanak administrazio-baimenik gabe egiteagatik edota jabari publiko hidraulikoari eragiteagatik.

2016an 13 zehapen-espeditente ireki dira isurketen arloko indarreko legedia ez betetzearen ondorioz.

Gutxi gorabehera 3.840 isurketa-baimenen jarraipena egin da: alde batetik hondakin-uren araztegien (HUA) ustiaketa-txostenak aztertuz eta aintzat hartuta, bereziki, 2.000 biztanle baliokidetik gora duten populazioak; beste alde batetik, isurketa-puntu nagusiak ur-jabari publikorako kaltegarri gerta daitezkeelako.




### 5.3.2 Ingurumeneko Baimen Bateratua

Oro har, Ingurumena babesteko helburuarekin 16/2002 Legeak Ingurumeneko Baimen Bateratuaren (IBB) kontzeptu berria sartu zuen: hartara, arroen bulegoetako isurketa-arloak esku hartu du IPPC legetik (Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuen Legea) eratorritako ingurumen-baimen integratuak izapidetzean. Hala hondakin-uren isuriei dagozkien txosten loteslearen errekerimendu eta proposamenetan, nola ingurumen-baimen integratuaren ebazpen-proposamenetan.

2016an zehar ingurumen-baimen integratuaren 15 ebazpen-proposamen berritan parte hartu dugu, eta 3 ebazti dira edota berrikusi, isurketa JPH edo ILZra egiten dutenak, eta horien jarraipena egiten ari gara.

Isurketa baimenak 2016




### 5.3.3 Isurketak Kontrolatzeko Kanona

Ur-Jabari Publikora egiten diren isurketengatik isurketa kanona ordaintzen da, jabaria zaindu eta hobetzera bideratua. Gaur egun, Uraren Euskal Agentziak Euskal Autonomia Erkidegoko barneko arroen kanona baino ez du likidatzen.

Ondoren isurketak kontrolatzeko kanon honen bilakaera aurkezten da.

**Kobratutako uraren kanonaren bilakera**



### 5.4 Ur-aprobetxamenduak

Ur-aprobetxamenduetarako emakidek honakoa lortu nahi dute: jabari publikotik ura hartzeko betebeharreko baldintzak ezartzea, lehentasun-ordenari jarraiki eta aprobetxamendu horiek ur-masen egoerari kalterik eragin diezaioten saihestuz.

Mendebaldeko eta Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoek (Erkidego Barneko Arroetan) ur-aprobetxamenduen espedienteak izapidetzen, eta horien jarraipena eta kontrola egiten jardun izan dira. 2016. urtean ur-aprobetxamenduen inguruko 109 espediente berri hasi dira eta 201 ebatzi dira.



Bestalde, epealdi berean 606 erregularizatzeko-espediente hasi dira titulartasuna aldatu, ezaugarriak aldatu edo aprobetxamendua iraungitzeko: orotara 429 ebatzi dira eta horietatik 384 iraungitze espedienteak izan dira.

Agentziari ur-aprobetxamenduen inguruan egindako kontsulten ondorioz, 30 espediente abiarazi dira epealdi honetan eta 29 erantzun dira.

Azkenik, indarreko legegintza-esparruaren barruan, partikularren 26 salaketa jaso dira, hortik ur-aprobetxamenduen inguruko 13 zehapen-txosten abiarazi dira eta 12 zehapen-espediente ireki dira.



### Aprobetxamenduak



2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016

### 5.4.1 Uraren kanona

EAEen uraren kontsumo edo erabilerari uraren kanonaren zerga ezartzen zaio. Kanon horrek Plangintza Hidrologikoaren helburuak lortzea du xede.

Zerga horrek uraren egiazko edo ustezko kontsumoa zergapetzen du EAEen, uraren erabilerak ingurumenari eragin diezaiokkeen eraginagatik. Hain zuzen ere, honako hauei ezarritzen zaie kanona:


- ◊ Hirugarren batzuek hornituak izan arren, erabiltzailearen ur-kontsumoari.
- ◊ Azaleko uretatik, lurpekoetatik, euri-uretatik edo isurketa-uretatik, itsasoko uretatik edo beste edozein jatorritako uretatik erabiltzaileek berek zuzenean hartutako uraren kontsumoari.
- ◊ Uraren edozein kontsumo edo erabilerari, zeinahi delarik ere uraren jatorria edo hornikuntza-iturria, erabilerari produktibo bati loturik egon zein ez, kontagailu homologatu bidez neurtuta egon zein ez, fakturatuta egon zein ez.

### Bildutako dirua

2017. urtearen hasieran, 2016. denboraldian Uraren Kanonagatik bildutako diru-sarrerak guztira 2.148.726,11 eurotara iritsi dira. Hala ere, litekeena da zenbatekoa denbora gutxi barru handitzea, aurreko zenbatekoen antzekoetara heldu arte, 2016ko ekitaldian guztira 2.569.814,42 euro. bilduko direla aurreikusten baita (horietatik 142.000€ kendu beharko dira, konpentsatzeko gastuak izateagatik).

Nabarmendu beharra dago azken urteetan kanon honengatik bildutako dirua jaisten joan dela

### Kobratutako uraren kanonaren bilakera



(\*1) behin betiko kopurua, denboraldiaren likidazioa bikatzerakoan igotzea aurreikusten da

INTRA

### 5.4.2 Uraren erabileren inbentarioa


Uraren Euskal Agentziaren Uraren Erabileren inbentarioan (IUA) biltzen da EAE mailan uraren aprobetxamenduaren inguruko informaziorik esanguratsuena, kontuan izan gabe bere egoera administratiboa edo eskumen-eremua. Helburua da kontsultak egin ahal izatea eta lortutako informazioa esportatzea.

## 5.5 Ibilguak mantentzeko zerbitzua


2016an zehar EAEko 58 udalekin bilerak eta harremanak izan dira **Uraren Euskal Agentzia eta Udala, jabari publiko hidraulikoko ibai-ibilgu eta ertzetan batera lan egiteko protokoloaren sinatzearen inguruan.**

Guztira 2.321.513,18€ euroko aurrekontua izan du. Aurrekontuaren 32,43% ekosistemen hobekuntzarako ekintzetan inbertitu da (ingurumena leheneratu, landaketak, inbaditzaileak eraztea) eta 66,64 % uholde arriskua murriztera bideratutako ekintzetan (programatutako mantentzea eta ezustekoak)


### URAK ibilguen mantentzean egindako inbertsioa




## Ibaien mantentze-lanak arro-bulegoka banatuak



Mendebaldeko arroen bulegoa



Ekialdeko arroen bulegoa



Mediterranear arroen bulegoa






## 5.6 Ikuskaritza arloa eta laborategia

### 5.6.1 Ikuskaritza-arloa

Urak Ikuskatzeko Arloa funtsezkoa da jabari publikoa kudeatzeko. Honako eginkizun hauek ditu: URA agentziako gainerako organoei jabari publikoa jasaten ari den presioaren berri ematea, ur-masen gaineko inpaktuak murrizteko tokian tokiko neurriak hartzea, eta izapidetzen ari diren emakida eta baimenetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea.

SOS-Deiatik jasotako abisuak



Nabarmentzekoa da, era berean, SOS Deiak erakundearen abisuen arreta-lana, edozein jardueratan baimenik gabe ibilgu publikora egindako ohiz kanpoko isurketei dagokienez. Bulegoko langileek arreta eskaini diete abisu horiei guztiei, gaueko edota eguneko edozein ordutan, lanegun zein jaiegunetan, eskaera guztiei erantzunez. 2016an horrelako 304 abisuri eman zaie arreta.

Ur-ikuskariek Jabari Publikoak jasaten dituen presioen jarraipena egin dute: obrak eta jarduerak, isurketak edo ur-aprobetxamenduak. Halaber, ikuskaritza zerbitzua obra baimenen eta emakida administratibo guztien jarraipen eta erregistroan jardun dira.

Mantentze zerbitzutik egindako ekintza ororen etengabeko jarraipena egin dute eta baita ibilguak mantentzeko hainbat ekintza proposatu ere.



Azkenik, jabari publiko edota itsas-lehorreko zortasun eta babes eremuan antzemandako edozein kalteren erregistroa egin da.

### 5.6.2 Laborategia

URak Lasarten duen laborategian, 2016. Urtean, 1162 lagin aztertu dira guztira. Horietatik 648 Ekialdeko Kantauriko Arroetako eremuan: 372 laginketa programatuetatik, 184 hiri-aglomerazioetako laginketa-planetatik, 48 ohiz kanpoko isurien ondorio eta 44 ikerketa laginetatik. Mendebaldeko Kantauriar Arroen eremuan 514: 202 laginketa programatuetatik, 269 hiri-aglomerazioetako laginketa-planetatik, 34 ohiz kanpoko isurien ondorio eta 9 ikerketa laginetatik.

Besteak beste, honako parametro hauek aztertu ditugu: pH, SS, kolorea, eroankortasuna, OEK, solido sedimentagarriak, O5EB, nitrogeno amoniakala, nitratoak, nitritoak, sulfuroak, kloruroak, sulfatoak, metal osorako laginen digestioa, metal astunak, olio eta koipeak, zianuroak, fenolak, detergenteak, fosforoa guztira, fluoruroak, hidrokarburoak, alkalinitasuna, gogortasuna guztira, kaltzio-gogortasuna eta uhertasuna.

Administrazio hidraulikoaren Erakunde Lagun baten zerbitzuak kontratatu dira Mediterraneoko Arroetako Bulegoko langileek hartutako hondakin-uren laginen karakterizazio analitikoak egiteko. Erakunde horren bitartez 695 lagin aztertu dira, horietatik 121 aglomerazioetan laginak hartzeko planari dagozkie.



# Plangintza eta lanak

## 6.1 Plangintza hidrologikoa

### 6.1.1 Euskal Autonomia Erkidegoko Barneko Arroen Plan Hidrologikoaren Berrikuspena

Aurreko urteetan egindako lanaren ondorioz, urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuaren bitartez onartu zen Kantauri Mendebalde, Guadalquivir, Ceuta, Melilla, Segura eta Jucarreko, eta Espainiako zatiko Kantauri Ekialde, Miño-Sil, Duero, Tajo, Guadiana eta Ebroko Demarkazio Hidrografikoen Plan Hidrologikoen berrikuspena. Errege Dekretu hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2016ko urtarrilaren 19an.

2016an zehar Uraren Euskal Agentziak aurrera eraman du Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Plan Hidrologikoaren reporting prozesua, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoarekin lankidetzan. Prozesu hori Uraren Esparru Zuzentarauaren 15. Artikulua betetzera dator; bertan aipatzen da Estatu kideak Europako Batzordera bidali beharko dutela onartutako arroetako Plan Hidrologikoei dagokien informazioa.

Era berean, Uraren Euskal Agentziak hasi da 2016ko Ekialdeko Kantauriko Demarkazio Hidrografikoko Plan Hidrologikoaren jarraipenerako txostena egiten, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoarekin lankidetzan. Plan horren 73. Artikuluak dioenari jarraiki, txosten horretan aztertzen diren gai nabarmenenak honakoak dira: ur-baliabideak, ur-kontsumoak, emari-ekologikoen betetze-maila, ur-masen egoera eta neurri-programaren ezartze-maila.

### 6.1.2 Plangintza hidrologikoaren beste jarduera batzuk

2016an zehar Uraren Euskal Agentziak EAEko Barne Arroen Eremuan emari ekologikoen erregimena ezartzeko Hitzartze Prozesuaren lanak aurrera jarraitu ditu, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa onartzen zuen ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretuaren 15 artikuluari jarraiki.



Lan horiek burutzeko diseinatutako prozeduraren arabera bertan aztertu dira indarrean zeuden eta aintzat hartu beharreko emakida guztiak. Emaitzak unitate hidrologikoka antolatutako agirietan bildu dira, eta gero, kontsulta publikora zabaldu dira.

Izapide hori amaitu ondoren, eta, kasuan kasu, beharrezko aldaketak eginda, guztira 4.013 aprobetxamenduren Hitzartze Prozesua amaitu ditugu (guztien %99) eta emaitzak aprobetxamendu-jabeei jakinarazi zaie. 26 dira (%1) 2017an egiteke geratu direnak.



Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundi eta Busturialdeako Ur-Partzuergoarekin elkarlanean, bukatu egin da Urdaibaiko biosfera-erreserba Horniduraren Lurralde Ekintzako Plana, behin-behinean onartzeko prest; betiere, Urdaibaiko Biosfera

Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak ezarritakoari egokituz. Horniduraren Lurralde Ekintzako Planean bitartez oinarriak ezarri nahi dira ur-hornidurarako dauden arazoak ekiditeko eta Okaren arroan emari ekologikoak errespetatzen direla bermatzeko.



Halaber, hainbat lan egin dira EAEn aurki daitekeen Zebra Muskuiluaren inguruan. Horren barne: “EAEn Zebra Muskailua kontrolatzeko Jarraipen eta Koordinazio Batzordeko” ordezkarien arteko koordinazioa; espezie horren larba populazioa eta ale helduen kolonien segimendu lanak; eta espezieak tokiko ur-gezako kuskubiko (naiadeak) populazioetan duen eragina aztertzea.



### 6.1.3 Ur-masen egoeraren jarraipena egiteko sareak

2016. urtean, EAEko ur-masen egoeraren segimendu-programen mantentze lanak jarraitu dute. Sare horien helburua ur-masen egoera eta bilakaera ekologiko, kimiko eta kuantitatiboaren informazioa eskuratzea da; horiek guztiak UEZak ezarritako kontrol-eskakizunak aintzat hartuta. Sare horien helburua garrantzitsua da oso, uren kudeaketan informazio-pilatze horrek honako hauek ahalbidetzen dituelako: ingurumen-helburuak ezarri edota berrikustea; Plan Hidrologikoetan ezarritako neurrien programak ebaluatzea; eta, azkenik, baimenak eta emakidak kudeatzeko oinarri izatea.



Bestalde, kontrol zehatzagoa beharrezkoa dutela nabaritu den eremuetan jarraipen bereziak egin dira, eskuarki Jabari Publikoa Kudeatzeko Zuzendaritzaren edota beste administrazio batzuen (Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza, Ihobe, etab.) laguntzarekin. Hartara, arazo zehatzak dituzten azaleko eta lurpeko ur-masen azterlan zehatzagoak egin dira, hala nola, Gernika, Lantaron, Foronda, Loiola, Bidasoa, Ibaizabal etab.

Plangintza hidrologikoaren arloan eskumenak dituzten administrazio eta erakundeekin informazioaren partekatu eta koordinatzeari dagokionez, lortutako informazioa estatu mailan eta Europa mailan eskaintzeko beharrari erantzun zaio: OSPAR Hitzarmena, Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020) eta Ingurumeneko Esparru Programa diotenari jarraiki, beste batzuen artean

Ingurumen-informazio eskuratzeko betekizunak aintzat hartuta Jarraipenerako programa horien emaitzak eskuragarri dira webgunean, eta laburbildu egiten dira, bai URako bisorean, baita Eusko Jaurlaritzako Ingurumen-arloko Estatistika Organoa Berezian —tauletan—. Era berean, 2016an UBEGI deritzon plataforma bat garatu da, jarraipenerako programa horiek guztiek sortutako informazioa eskuragarri eta eskuraterraz eskaintzeko. UBEGI 2017an operatibo egotea aurreikusten da.




Plangintza hidrologikoak ezartzen dituen emari ekologikoen erregimenak betetze aldera EAEko Barneko Arroetako geratzen diren ur-aprobetxamendu nagusietan emari ekologikoen etengabeko kontrolarekin jarraitu dugu. Horretarako, unena uneko 107 aforo egin dira ondorengo unitate hidrologikoen arro nagusietan: Barbadun, Ibaizabal, Butroe, Oka, Lea, Artibai, Deba, Urola, Oria, Oiartzun eta Bidasoa.





## 6.1.4 Informazio-sistemak



2016. urtean zehar Uraren Euskal Agentziaren Espazio Datuen Azpiegitura (EDA) hobetu eta garatzeko lanekin jarraitu dugu, GeoEuskadiren barnean. Funtzionalitate berriak gehitu eta zabaldutako datu eskuragarriak gehitu dira.

Halaber, URaren Zeharkako Erakundeen proiektua aurrera pausoak eman dira. Bertan datu-taula nagusiak sartzen dira informazio geografiko zein alfanumerikoarekin. Datu horien mantenimendua informazio

geografikoko bisore baten bitartez egiten da, aplikazio informatiko guztietara moldatzen dena. 2016an ere aurrera pausoak eman dira Bisore hori hainbat aplikaziotan integratzeko, eta entitate berriak ere gehitu dira.

Bestalde, tokian bertan datuak jasotzeko lanei dagokionez, 2016an hainbat aldaketa egin dira datuak jaisteko sisteman, eta bildutako datuen kontsulta/ustiatetarako aplikazio berria sortu da. Halaber, arlo horretan, aurreratu egin da lagin hartze eta zaintza planen ezarpenean. Aplikazio berri hori zeharkako erakundeen proiektuarekin bat egin du; horri esker, lortu da erabilgarritasun nabarmen handiagoa eskaintzea erabiltzaileari, informazio grafikoa eta alfanumerikoa uztartzuz.

## 6.1.5 Lankidetzeta-hitzarmenak

2016. urtean ondorengo erakundeekin lankidetzeta-hitzarmenak sinatu edo garatu dira, oro har, ekosistema urtarrak babestu edota hobetzeko helburuekin:


Uraren Euskal Agentziaren eta AZTI - Tecnalia Fundazioaren arteko lankidetzeta-hitzarmena, besteak beste, honako helburu hauekin: EAEko trantsizioko eta kostaldeko ur-masei lotutako ekosistemen ezagutza-maila hobetzea, EAEko trantsizioko eta kostaldeko ur-masei lotutako ekosistemen narritzea saihestea eta horien egoera hobetzea, eta EAEko trantsizioko eta kostaldeko ur-masei lotutako kostaldeko eremuen kudeaketa hobetzeko ekintzak burutzea. Hitzarmen horren barruan, 2016rako aurreikusitako ondoko proiektuetako eginkizunak burutu dira: EAEko trantsizioko eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipen-sarea; EAEko Kostaldeko bainurako eremuetako profilen 2016ko berrazterketa edota Zerbitzu ekosistemikoak berreskuratzea lehengoratuako ibaiadar batean Uraren Esparru Zuzentarauaren harira (MARS Proiektua)



2014ko abenduaren 15ean Ur partekatuen kudeaketa-gutuna sinatu zuten, Agglomération Sud Pays Basque, Niveko sindikatua, Agence de l'eau Adour-Garonne, Pyrénées-Atlantiques-eko Kontseilu orokorra Nafarroako Gobernua, Gipuzkoako Foru Aldundia, eta Uraren Euskal Agentziak. Gogoratu behar da gutun horren helburua dela administrazio arteko lankidetzaz sustatzea uraren kudeaketaren eta ur-baliabideen inguruan, partekatzen diren ibaietako ura era iraunkor, bidezko eta koordinatu batean erabil dadin. Haren harira, 2016an gutun horretan parte hartzen duten bilera teknikoak eta ordezkari politikoak egin da.



2016an H2OGUREA proiektua abian jarri da, aurretik aipatutako Kudeaketa-Gutunaren eta INTERREG\_POCTEFA 2016-2019-ren dialdiaren esparruan. Proiektu horrek xede du eragile eskudunen arteko koordinazioa lortzea mugazgandiko arroetan urarekin eta ingurune urtarrarekin harremana duten zuzentarauen helburuen garapenerako. Uraren Euskal Agentziak gain bertan parte hartzen dute baita ere Gipuzkoako Foru Aldundia, Nafarroako Gobernua, Txingudiko Zerbitzuak, Urdax eta Agglomération Sud Pays Basque.



## 6.1.6 Formazio eta sentsibilizazio ekintzak

2016ean zehar URAk ingurune urtarraren inguruko zientzia-formakuntza, partehartzea eta dibulgaziorako ekitaldietan parte hartu du. Nabarmendu daitezke, beste batzuen artean:

- GeoEuskadi 8. jardunaldia: EAEko ortografia historikoa, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika sailak antolatuta (2016ko apirila).
- Unesco Katedra Masterrean parte hartzea, EHUKo Zientzia eta Teknologia Fakultatean (2016ko abendua).
- Ingurumen kongresu nazionalen (CONAMA 2016, Madril 2016ko abendua) parte hartzea.
- Lurpeko urei buruzko kongresu espainiar-portugaldarrean parte hartzea hidrologia-plangintzaren bigarren zikloan (Madril, 2016ko abendua)

Aipatzeko da RESERVIAl proiektuan parte hartu dela: Espainiako ibai-erretserbak sistematikoki planifikatzeko erremintei buruzkoa, eta espresuki, Ebro Arroan erabili litezkeen buruzkoa. Orobat, 2016an zehar sentsibilizazio-estrategiari jarraipena emateko, dibulgaziorako hitzaldi, infografia eta azterlanak egin dira.

Halaber, URAko irudi-bankua ere jarri da abian, Eusko Jaurlaritzaren ARGAZKI dokumentu-funtsaren barruan.

## 6.2 Ebaluazioa

Ebaluazioaren arloan hainbat dokumentu eta proiektuen azterketa eta txosten egiteko lanarekin jarraitu dugu araudiari egokitzen dela egiaztatzeko Uraren Euskal Agentziaren eskumenak eta EAEko eskumen antolaketa kontuan izanda. Lan hori Jabari Publikoa Kudeatzeko Zuzendaritzarekin lankidetzan estuan garatzen da eta honako izapide hauek ditu aztergai:

- a)** Euskadiko barne arroetako aprobetxamendu eskaeretan, Plan Hidrologikoak ezarritakoarekin bat egiten duten ikusteko txostenak. Konfederazio hidrografikoak eskatuta, baita erkidegoarteko arroetako aprobetxamendu eskaeretan ere bateragarritasuna ikusteko txostena.
- b)** Hirigintza-antolamenduko tresnei (plan orokorrak, arau subsidiarioak, plan partzialak eta plan bereziak) dagokienez lotesleak diren txostenen proposamena ematea hasierako onarpena baino lehen, Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7. artikulua I letrari jarraiki
- c)** Hirigintza-antolamenduko tresnei (plan orokorrak, arau subsidiarioak, plan partzialak eta plan bereziak) dagokienez lotesleak diren txostenen proposamena ematea haien hasierako onarpenaren ondoren Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7. artikulua k) letrari jarraiki.
- d)** Hirigintza-espediten txostena, udalen behin-behineko onarpenaren ondoko fasean, Euskadiko Lurralde Antolamenduaren Batzordean, espedita behin betiko onartu baino lehen.

- e) Dagokion Ingurumen-Organoari txostena ematea, Ingurumen Ebaluazio Azterlanen izapidetzearen esparruan: plan, programa zein proiektuetarako.
- f) Kutsatutako lurzoruei buruzko txostena,, eta lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenak (abeltzaintza-ustiapen jardueretarako baimenak, betelanak, zaborteziak...)
- g) Gernikako babes-perimetroan egin beharreko jardueri buruzko txostenak; eta administrazio, aholkularitza eta jendarteak egindako kontsultei erantzuteko txostenak: Ingurumena, uholde-arriskua, ingurune urtarra, Hidrologia-plangintzako babesguneak...
- h) Uraren Euskal Agentziako eskumenetako gaietan isla izan lezaketen balizko araudiari buruzko txostenak.

Horrela, ebaluazio-arloaren 2016ko ekitaldiko jarduera, laburbiltzeko, aztertutako espedienteen zifrak eta idatzitako txosten edo oharren kontuan izanda (365 guztira):

- 89 espediente Uren emakidekin/aprobetxamenduen inskripzioekin loturikoak, barne zein erkidegoarteko arroetan.
- 102 txosten Proiektu, Programa eta Planen Ingurumen Ebaluazio-izapidetzerako.

- 55 espediente hirigintza-planteamenduen berrikuspenekin loturikoak — uraren esparruko zein lurzoru-esparruko araudiak aintzat hartuta —, prozedura-fase desberdinetan, Euskadiko Lurralde Antolamenduaren Batzordearen esparruan, espediente behin betiko onartu baino lehen.
- 59 txosten aurkeztu zaizkio Euskadiko Lurralde Antolamenduaren Batzordeari onespina lortzeko (6 egin dira 2016an, baina 2017an igorri).
- 60 txosten ondorengo tramiteen inguruan: lurzoruaren kalitateari buruzkoak, abeltzaintza-ustiapen jardueretarako baimenak, betelanak, zaborteziak, Gernikako babes-perimetroan egin beharreko jardueri buruzkoak, etab.

Halaber Jabari Publikoa Kudeatzeko Zuzendaritzarekin batera lan egin da hainbat presa txiki iragazkor egiteko proiektuak aztertzen, arrainen mugikortasuna hobetzeko helburuarekin. Era berean, Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritzarekin elkarlanean aritu gara eta hainbat txosten egin dira Autonomia Erkidegoko arroetako hainbat zubi eta elementu arkitektonikoen inguruko ebazpen edo ebazpen zirriborroen harira.



## 6.3 Uholdeei aurrea hartzea

### 6.3.1 Uholde-arriskuaren Ebaluazio eta Kudeaketa EAEn

2016an Ministro Kontseiluaren onspena jaso eta urtarrilaren 15ko 20/2016 E.D. bezala argitaratu eta promulgatu zen: Kantauri Mendebalde eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde-arriskua Kudeatzeko Planak onartzen dituen. Horrela, 2007/60/EE zuzentaraua zehaztutakoari jarraiki, Uholde arriskua ebaluatu eta kudeatzeko zuzentaraua ezartzeko lehen fasea bukatu da.


Halaber, urte honetan, uholde arriskuaren atariko ebaluazioaren eguneratze-lanak hasi dira; hartara, informazioa bildu eta antolatzeari ekin zaio. 2018rako bukatuta eta prest izatea aurreikusten da, indarrean den legediak ezarritakoa betetze aldera.

Kantauri Ekialde eta Mendebaldeko eta Ebroko Uholde Arriskua Kudeatzeko Planen berriazko agirietaz gain (dagokion administrazio hidraulikoaren webgunean edonorentzat eskuragarri daudenak), URA, bisorearen bitartez, erabiltzaileen esku jartzen joan da arriskugarritasun kartografia eta dagokion modelazio hidraulikoaren datu nabarmenenak. 2016an sare hidrografikoaren beste 70 km-en kartografia aztertu da, nahiz eta oraindik bisorean eskuragarri ez egon.

Lehentasuna duen uholde arriskua murrizteko helburua betetzeari dagokionez, 2016an zehar 166 txosten eskari jaso dira: 36 hirugarren baten ikerketa hidraulikoaren baliospena egiteko, 57 aurkeztutakoak Uholde Arriskua Kudeatzeko Planaren irizpideekin bat datorren ala ez aztertzeke eta beste 73 uholde arriskugarritasunari buruzkoak.

### 6.3.2 Aurreikuspen eta Alerta Hidrologikoen Sistema (UHATE)

2016an zehar sistemak hainbat alerta sortu ditu euri-gogorretako gertakariak zetozeala. Horrelako kasuetan protokoloak ezartzen duenari jarraiki, hala Larrialdi eta Meteorologia Zuzendaritza, nola horrelakoetan biltzen den krisi-mahaiko kideek bertatik bertara ezagutu dituzte ibai eta urtegieta kokatutako kontrol puntuetan gertakariak izan duten bilakaeraren simulazioaren emaitzak. Urtegiei dagokionez, era berean, Ebro zein Kantauriko Konfederazioei hainbat ekintza proposamen helarazi zaie Zadorra eta Añarben izandako gertakarietan.



Sistema etengabeko hobekuntza prozesu batean dago simulazioak ahalik eta zehatzenak izan daitezen, eta sistemaren ahalmenak handituko dituen tresna osagarriak abian jarri ahal izateko.



### 6.3.3 Informazio Hidrologikoaren Sistema Automatikoa (SAIH)

Sistema honek, gaur egun, EAEn kontrol hidrometeorologiko eta kalitaterako sare bateratua osatzen duten kontrol puntuetatik jasotako informaziotik hartzen ditu datuak. Horien ustiapena honako erakundeek egiten dute: Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundiek, Larrialdi eta Meteorologia Zuzendaritzak, URAK; era berean, Kantauri eta Ebroko Konfederazioek ere estazio batzuk dituzte, eta Añarbeko urtegiko monitorizazioak eskaintzen duen informazio nabarmenenena ere erabiltzen da.

Sistema mantentzeak bertan sartzen den informazioaren etengabeko monitorizazioaren beharra dakar eta lortutako datuak iragazi eta balioztatzearena. Lan horrek guztiak xede du EAeko parametro hidrometeorologikoaren bilakaeraren serie adierazgarriak sortzea.

## 6.4 Lanak

Aldi honetan hainbat jardun prestatu eta egin ditugu hidrologia-plangintzan aurreikusitako, eta URAREN erantzukizuna diren, zenbait helburu lortzeko; hala nola: ur-masen egoera ona lortzea, babes egokia ematea edota uholdeen aurkako defentsa. Horrekin batera beste erakunde batzuen erantzukizuna diren helburuak lortzeko elkarlanean aritu gara; besteak beste: ur-eskariei erantzutea eta eskualdearen eta sektorearen oreka eta garapena.

Lan horiek burututa hainbat gauza lortzen dira: kudeaketa integratua eta ur-baliabideen epe luzerako babesa, uren egoeraren nariadura saihestea, ur-ingurunearen eta ur-ekosistemen babesa eta hobekuntza; kutsadura gutxitzea, uholdeen eta lehorteen ondorioak arintzeaz gain.

Uraren Euskal Agentziak 2016. urtean garaturiko jardun nagusiak honako hauek izan dira:

- 🔹 Oiongo HUA hobetu eta handitzeko lanak hasi dira.
- 🔹 “El Puntido” industriagunearen hondakin urak Oiongo kolektore nagusira bideratzeko lanak hasi dira.
- 🔹 Vitoria-Gasteizko hegoaldeko ibaietan lan hidraulikoak egiteko Vitoria-Gasteizko Udalarekin sinatutako hitzarmenean barne diren proiektu ezberdinen inguruan lan egin da.
- 🔹 Abetxuko zubi zaharraren lehengoratzeko lanak abian dira.
- 🔹 Ibaizabalen, Urbi-Bengoetxe tarteko faseko lanak jarraitu dira.
- 🔹 Gobela ibaiaren egokitze hidrauliko eta ingurumenaren hobekuntza lanak bukatu dira Errekagane tartean, Getxon.
- 🔹 Gobela ibaiaren egokitze hidrauliko eta ingurumenaren hobekuntza lanak aurrera darraite Faduran, Getxon.

- 💧 Mundakako itsasadarrean, Sukarrieta eta Lamiarango HUAren arteko tartean, saneamendu-kolektore nagusia osatzeko 2. banakatuko lanak aurrera darraite.
- 💧 Martutene auzoan Urumea ibaiaren uholdeei aurre egiteko lanen lehenengo fasea aurrera darrai.
- 💧 Villabona-Zizurkilen Oria ibaiaren uholdeei aurre egiteko lanen bigarren fasea bukatu da
- 💧 Inturiako presaren eraispeneren 4. Fasea Leitzarar ibaian burutu egin da, eta horrenbestez eraispena amaitu egin da LIFE+IREKIBAI proiektuaren esparruan. Proiektu horren xedea da Leitzarar eta Bidasoa ibaiaren ingurumenaren egoera hobetzea eta bertan parte hartzen dute Uraren Euskal Agentzial, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Hazi Fundazioak eta Nafarroako Gobernuak.

Arestian azaldutakoaz gain, entitate txikiagoko beste hainbat obra eta proiektu burutu dira lurralde osoan zehar.

Bestalde, Ur Jabari Publikoaren Erregelamendua aldatu zuen urtarrilaren 11ko 9/2008 Errege Dekretuaren arabera, Uraren Euskal Agentziari dagokio, barne-arroetako, zein erkidegoarteko arroak izanda ur-jabari publikotik kanpo dauden Presa eta Urmaelen Sailkapen Proposamenak (SP), Larrialdietako Planak (LP) eta Ustiapen Arauak (UA) zein dagozkien Ezarpen Planak berrikustea eta onartzea. Zentzu horretan, hainbat presa eta urmaelen sailkapen-ebazpen egin eta larrialdietako planen eta ustiapen-arauen berri eman da.



Uraren  
Euskal  
Agentziaren  
**Memoria**



2016

*Euskadi,  
auzolana, bien común*

